



## DEBAKO ETA ITZIARKO AUZOKONPOSTAJEA

Abenduan zehar jasotako **zalantza/iradokizun nagusienak eta beraien erantzunak** ondorengoak dira:

Zalantza/iradokizuna	Erantzuna
<b>Egituretzailearen kaxa itxita egotea (txukunago geratzen delako, txakurrak sar daitezkeelako...)</b>	Aurreko hilabetean emandako erantzun berdina ematen dugu: Egituretzailea konpost-gunera bustita gehituta ere bere egituretzaile eta materia lehortzaile funtzioa ondo betetzen du, dena nahastean temperatura altuak lortzen ari baikara.  Bestalde, bi hilabete hauetan txakurrik sartu izanaren zantzurik ez dago.
<b>Egituretzailea eskuekin hartzea ez da eroso</b>	Udalak eskaera hau jaso ondoren, erabaki zuen gune bakoitzean pala bat jartzea estrukturatea hartu ahal izateko. Beraz, gaur egun, jarrita daude palak.
<b>Zentroko konpost-gunean usaina dago eta eulitxa asko azaldu dira</b>	Usaina hezetasun maila altuagatik edo aireztatze txar bategatik izan daiteke. Egituretzailea (material lehorra) gehituz, gutxitzea lor daiteke.  Eulitxa asko azaldu dira, bai. Zitriko (laranja azal) asko daudelako izan daiteke, hauek azukrea baitute eta eltxoek hori gogoko dute. Beraz, saiatu laranja azal gutxiago botatzen (asko sortzen baduzue zati bat betiko zaborrontzira bota)  Hala ere, udaleko langileak, bi arazo hauek moldatzen saiatuko dira metodo desberdinen bidez.
<b>Zentroko konpost-gunean arazoak egon dira kandadua ixteko</b>	Kandadua nahiko zail zegoen. Ixtea kostatzen bada, giltzari bira egin behar zaio eta ondoren itxi. Hala ere, kandadua aldatu egin da eta ongi dagoen bat jarri da.
<b>Zentroko konpost-gunean zaila da materiala nahastea, altuera handia dagoelako lurretik ateraino</b>	Dagizuen bezala, aurreko taulak kendu daitezke. Hala ere, zaila egiten bada nahastea, lasai egon, hondakina bota eta gaintetik egituretzailea botatzearekin nahikoa da, konpost maisuak eta udaleko langileak nahastuko dute material guztia.  Hala ere, orain bigarren konpartimentua ireki da, eta bigarren hau baxuago dago, 10 bat zentimetro baxuago.
<b>Agirretzeko konpost-gunean biohondakin zati handiak agertzen dira, baita jogurt tapa edo egunkaria ere</b>	Gogoratu ikastaroan ikasitakoa; prozesua azkartzeko egokia da hondakinak 5-10 zentimetroko zatietan txikitzea.  Gogoratu baita ere, ikastaroan azal dutako biohondakinak soilik bota daitezkeela konpostagailura (ez arrain eta haragi hondarrik, ez egunkaririk...)

